

Antoni Elkorobarrutia Gallastegi
Elgeta, Gipuzkoa
(1924)

Aurkibidea

Biografia



Beizu baserrian jaio zen (Goimendi auzoan); Ojanguren baserrira ezkondu zen, Arantzeta auzora. Aita Aretxabaletakoa zuen eta ama elgetarra. Ama oso gazterik hil zen, Antoni jaio eta berehala. Bizi guztian baserrian eta baserritik bizi izan da. Umetatik gustatu izan zaio kalea, baina eskolara oso gutxi joan zen; bidea ere juxtu-juxtuan ezagutzen omen zuten.

Zintak

ELG-019

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Elgeta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mendicute, Josu
- **Data:** 2008-01-04
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber

Pasarteak

1. Eskola 10 urterekin utzi zuen

- **Erref:** ELG-019/002
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:02:00. **Bukatu:** 00:04:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Zazpi urterekin hasi zen eskolara eta hamarrekin utzi zuen. Baserriko lanetan aritu behar izaten zuen. Astoa, txerria eta beste zenbait ganadu zituzten. Baratzeko lanetan aritzen ziren etxerako jakiak lortzeko. Goizeko lehenengo lana behiak jeiztea izaten zen.</p>

Transkripzioa

- Orduan zu umetan baserrixan bizittakua zara?
- Bai, bai, bai... baserrixan, bai.
- Eta gustatzen jatzun txikitan bizitzeko tokixa baserrixa?
- Baserrixa? Kalia gehixau gustatzen jatan neri. Baiña han genden ta herrira ezin jua. Zazpi urtekin hasi nintzan eskolan eta hamarrekin laga. Ta gero, berriz, urtetzeko ez euen lagunik, ta etxien egon bihar sarritan.
- Eskolara zazpi urtekin esan dozu?
- Bai, bidia be ez genkiun herrira, sekula jua be ez. Oingo moduan? Oin umiak-eta hazi orduko badoiez kalera.
- Baserrixan lan eitten zenduan?
- Bai, hoixe lan...! bihako in! bihako in! Gerria etorri zan hamar urtekin, hamabi urtekin edo hamarrekin ta... hantxe.
- Eta ze itten zenduan baserrixan?
- Baserrixan? Esandako danak: bixkarrian karga arbixak hartu ta etxera eruan, ta astuakin ta... ahal dan moduen esaten dan dana.
- Animalixak, ze animali zittuzuen?
- Danetik. Ganauak, astua, txarrixa be urtero hazten giñuen etxerako.
- Zuk danak zaintzen zenittuan edo?
- Bai, nik eta aitzia be han euan, ta danon artien.
- Eta zelan banatzen zenuten lanak?
- Lana? Ba... nik esandakua in bihar beti.
- Gaztiena ziñalako?
- Bai.. horixe.
- Ahizpiak agintzen zeban?
- Bai. Aitta [...] bat zan eta aittak esaten otsan gerraostian: "hau kolegixora, kolegixora". Oin beste jakin banu, kolegixora juango nitzan ni! ta baserrira ezkondu be ez.

- Aittak be bai baserrixan itten zaban lan?
- Bai, bai, bai.
- Kanpuan ez, ezta?
- Ez, ez.
- Beti baserrixan?
- Klaro, lehen dana baserrixa zan. Oin ez dao baserrittik ezer, baiña orduan baserrixa zan, orduan baserrixa zan.
- Eta ortuan eta be bai aritzen ziñaten edo?
- Bai, danien, etxerako jenerua ta.
- Eta ze izaten zan jaiki ta lehenengo lanak eta?
- Ba... hori... behixak jeiztia lehenengo lana, esnia etara edo saldu-edo eitteko.
- Eta gero beste ahizpia juaten zan saltzera edo?
- Ez dakit, nik horrek danok ez dakat goguan be. Hogeita bat urtekin ezkondu nitzan honaxe ta akabo.
- Lan haundixa izango zan, ez?
- Honbre!! Hoixe lan handixa! Beti diziplinapian. Oingo moduen? Oin umiek eta... gozotan bizi die!

2. Etxetik eskolara ordubeteko bidea

- **Erref:** ELG-019/003
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:04:57. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolara alboko baserrietako lagunekin joaten zen. Ordubete inguruko bidea zuen etxetik eta egun osokoa izaten zuen, izebaren etxean bazkaltzen zuen eta.

3. Josten ikastera joan eta erdaraz ere ikasi

- **Erref:** ELG-019/004
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:06:00. **Bukatu:** 00:08:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

<p>Elgetan gerra ondorenera arte mojak egon ziren. Adin ezberdinekoak elkarrekin joaten ziren eskolara. Dotrina izaten zuten ikasgai nagusi. Erdaraz ez zekiten eta Antoni ez zen ondo moldatzen, mojek euskaraz egin arren liburuak erdaraz izaten baitziren. Josten ikastera joaten zen eta hantxe ikasi zuen erdaraz.</p>

4. Ittulan eta ganadua zaintzen

- **Erref:** ELG-019/006

- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:09:38. **Bukatu:** 00:11:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Beizu eta Asula baserrietako gazteak zaharragoak ziren, baina haiek zituen lagun. Lapiko tapekin jolas egiten zuten, baina itxulan eta ganadu-zain aritu behar izaten zuten eta ez zuten astirik izaten. Ardiekin mendira joaten zen Antoni eta gauerako etxera bueltatzen zen.

5. Kaletar eta baserritarren aldea janzkeran

- **Erref:** ELG-019/007
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:11:43. **Bukatu:** 00:12:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Kaletar eta baserritarren artean ezberdintasun nabarmena izaten zen jantzietatik hasita. Igandeetan soineko dotoreagoa janzten zuten. Kaletarrek ez zuten abarkarik janzten.

6. Pikatxoiez egindako bidea

- **Erref:** ELG-019/008
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:12:53. **Bukatu:** 00:15:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Garai hartan pagoa zen ugaria eta pinua sartu zenean baserritarrek irabazi handia izan zuten. Antoniren etxerako bidea pikatxoiez egin da bera ezkondu ondoren. Eskolara lokatzetan hankak bustita sarritan joan ohi zen eta izeba baten etxean aldatzen zen.

7. Dutxa bakarra, baldeko ura

- **Erref:** ELG-019/009
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:15:20. **Bukatu:** 00:15:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Ura beti izan zuten etxean, baina dutxarik ez eta baldean ura hartuta egiten zuten garbitasuna.</p>

8. Mezara goizeko 7etarako

- **Erref:** ELG-019/010
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:15:55. **Bukatu:** 00:18:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Senargaiarekin hasi zen inguruko herrietara ateratzen. Elgetatik Eibarrera ez zegoen biderik eta Bergararik bueltan ibiltzen ziren. Igandeetan mezara joaten ziren. Ezkondu ondoren ere zazpietarako joaten zen goizean. San Martin ermita; San Martin egunez garia bedeinkatzeko ohitura izaten zen.</p>

9. Lehendabiziko argia errotatik

- **Erref:** ELG-019/011
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:18:22. **Bukatu:** 00:19:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Auzoan errota zuten eta argia ere hasieran handik hartzen zuten turbina batekin. Urik ez zegoenean ezin izaten zuten denbora askoan argirik eduki.

10. Haragia igandeetan bakarrik jaten zen

- **Erref:** ELG-019/012
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:19:55. **Bukatu:** 00:22:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Ganadua nola zaintzen zuten azaltzen du. Hiltzera Eibarko hiltzegira eramaten zituzten oinez. Pasadizo bat kontatzen du. Txerriak etxerako hazten zituzten. Igandeetan jaten zuten haragia, osterantzean ez zen haragirik izaten. Abereak gaixotzen zirenean al baitariarengana eramaten zituzten.</p>

11. Txerri hiltzea eta odolki banatzea

- **Erref:** ELG-019/014
- **Iraupena:** 0:04:48. **Hasi:** 00:22:32. **Bukatu:** 00:27:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>Artoa, garagarra eta abar ematen zieten jateko ganaduari. Ganaduekin egiten zuten soroko lan gehiena (ittulan, goldaketan, etab.). Ganaduak bakoitzak bere askatik jaten zuen eta udan kanpora atera ohi ziren. Txerria hil ondoren garbitu egiten zuten eta ondoren odolki eta txorizoak egiten zituzten hiru lagunen artean. Ohitura zen auzoko etxeetara odolkiak banatzea.</p>

12. Abereen inguruko azalpenak

- **Erref:** ELG-019/015
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:27:20. **Bukatu:** 00:30:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Ardiak zituzten etxean eta gazta nola egiten zuten azaltzen du. Oiloak txitak basoan aterata kanpoan ibiltzen ziren. Arrautzak udan bakarrik egiten zituzten, neguan hotzarekin ez zuten arrautzarik jartzen. Arrautzak saldu egiten zituzten. Haragia Elorriotik erosten zuten.</p>

13. Josten ikasten Elgetan

- **Erref:** ELG-019/017
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:33:03. **Bukatu:** 00:34:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Eskolako liburuak erdaraz izaten ziren eta meza berriz latinez, ez zuten tutik ere ulertzen. Eskola amaitu eta josten ikasten ibili zen Elgetan, etxerako arropa berak josten zuen.

14. Umetako jolasak; garizuman txirikilan

- **Erref:** ELG-019/018
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:34:34. **Bukatu:** 00:36:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Garizuman "txirikilan" jolasten zuten; jokia zertan datzan azaltzen du. Ezkutaketan, sokasaltoan eta beste jolas batzuetan ere aritzen ziren. Ez zuten jostailurik izaten.

15. Neskari ez tabernara

- **Erref:** ELG-019/019
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:36:25. **Bukatu:** 00:40:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Neskak tabernara sartzea gaizki ikusia zegoen. Andra Mari jaietan madariak saltzen ziren plazan. Neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren. Mutilekin erromeriara joan eta etxera bakoitza bere bidetik joaten ziren; muxua ematea ere asko izaten zen. Dena zen bekatu eta hilero joan behar izaten zuten konfesatzera Mariatarren kongregaziotik.</p>

16. San Roke, Santa Ageda eta inauteriak

- **Erref:** ELG-019/020
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:40:10. **Bukatu:** 00:42:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

Festetan meza berezia eta erromeria egoten ziren. San Roke egunean Salbea egiten zen musikaz lagunduta. Inauteriak ere ospatzen ziren eta elkarren jantziak trukatzeko zituzten mozorrotzeko. Santa Ageda egunean baserriz baserri eskean ibiltzen ziren.

17. Ile luzea eta aurpegian hautsak

- **Erref:** ELG-019/022
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:44:12. **Bukatu:** 00:46:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Igande edo festetan apainago janzten ziren. Antonik berak mozten zuen ilea etxean. Arropak "txinbo" xaboiarekin garbitzen zituzten. Elgetatik Eibarrera joaten zen ile-apaindegira; ile luzea eramaten zuen beti. Ez ziren makilatzen, baina hautsak ematen zituen noizean behin.

18. Medikuari ordaintzeko arrautzak

- **Erref:** ELG-019/024
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:46:48. **Bukatu:** 00:47:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

Inor gaixotuz gero Elgetako medikua bera joaten zen etxera eta ordainetan arrautzak edo zerbait ematen zitzaion.

19. Jaiotzari buruzko kondaira

- **Erref:** ELG-019/025
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:47:45. **Bukatu:** 00:49:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Umeak jaiotzen zirenean, Arrateko elizako barkuan etortzen zirela esaten zen. Antonik ere istorio hori kontatzen zien bere umeei.

20. Arrate eta Santa Eufemiarako joera

- **Erref:** ELG-019/026
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:49:06. **Bukatu:** 00:50:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Arratera joateko ohitura zuten eta baita Santa Eufemia mendira ere bertako egunean. Osintxuko esnezalearen kamioian sartu eta Markinara joaten ziren haurrak eta gero handik Santa Eufemiara.

21. 7 alabaren ama

- **Erref:** ELG-019/028
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:50:34. **Bukatu:** 00:52:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

21 urterekin ezkondu eta 7 alaba izan zituen. Alaben aipamena egiten du. Jaunartze handia eta txikia egin zituen eta sendikoek etxean bazkaria egiten zuten ospatzeko.

22. Aste Santuko prozesioa

- **Erref:** ELG-019/030
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:52:26. **Bukatu:** 00:53:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Aste Santuko prozesioaren aipamena egiten du. Antoniren gizona moroz jantzita ibili zen urte askoan.

23. Eibarko merkatu plazara saltzera

- **Erref:** ELG-019/031
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:53:50. **Bukatu:** 00:56:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserritik bizi izan da beti. Ezkondu ondoren Eibarko merkatu plazara joaten zen astean bitan autobusez. Astoan joaten ziren etxetik autobuseraino. Eibarko azoka handia izaten zen.

24. Autobusean karga ere ordaindu egin behar

- **Erref:** ELG-019/032
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:56:00. **Bukatu:** 00:57:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

Autobusak alde bat karga eramateko izaten zuen atzean eta pertsonako ordaintzen zutenaz gain, karga beste hainbesteko bat ordaindu behar izaten zuten. Elgetatik Eibarrerako bidea gerra aurretik egina da.

25. Gerra garaiko bizipenak

- **Erref:** ELG-019/033
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:57:42. **Bukatu:** 01:00:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra hasi zenean, Antonik 11 urte zituen. 7 hilabete iraun zuen fronteak inguruetan. Antoniren baserrian ez zen txikiziorik izan. Anaia frontean egon zen boluntario lehengusu batzuekin. Gerra garaian ganaduak kendu zizkieten. Ogia gauez eta ezkutuan egin behar izaten zuten. Eibartik emakumeak esne eta jatekoaren bila joaten ziren Elgetara.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com